




# **GARAPENERAKO LANKIDETZA, UNIBERTSITATEAN**



Universidad  
del País Vasco

eman ta zabal zazu  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## **ZERGATIK SUSTATU GARPENERAKO LANKIDETZA UNIBERTSITATEAREN BIDEZ?**

Gaur egungo mundu globalizatu honetan, ezinbestean egin beharra dago gizarte justuagoa eraikitzeko ahalegina. Ahalegin horrek, gainera, ezin du izan herrialde jakin baten baitara mugatua, eta beharrezkoa da gizarte osoak laguntzea mundu osoan gizarte, ekonomia, hezkuntza, osasun edo politika arloetan gertatzen den berdintasunik ezari aurre egiten.

Hori dela-eta, unibertsitate-sistemak protagonista modura jardun behar du giza garapenerako prozesuetan, gizarte justuagoa eraikitzea eta parte-hartzea sustatzera begirako estrategia berriak ikertuz eta gauzatuz, boluntariorik gabe, lankidetzaren eta hirugarren sektoreko lanaren bidez.

**Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren** unibertsitate-komunitateak oro har egiten duen ahalegin solidarioa da, berarekin lankidetzan diharduten gizartearen ahalmena sendotzera bideratua, arreta berezia ematen diena unibertsitateari eta hezkuntzari.





## ARAUDIA

❖ Abenduaren 21eko Unibertsitateen 26/2001 Legea, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatua:

- **Atarikoan**, unibertsitateak balioen transmisioan duen zeregina nabarmentzen du, eta orobat esaten du unibertsitateak bereziki zaindu beharreko balioak direla elkarrizketa, bakea eta herrien arteko lankidetzak.
- **92. artikulua** ezarritakoaren arabera –“nazioarteko lankidetzari eta solidaritateari” buruzkoa–, unibertsitate-komunitateko kideek nazioarteko lankidetzako eta solidaritatezko ekintza eta jardueretan parte har dezaten sustatu behar dute unibertsitateek. Eta bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen laguntzeko ekintzak eta jarduerak gauzatzen lagundu behar dute, garapen solidariorako ezinbesteko elementuak diren heinean.





## ARAUDIA

### ❖ UPV/EHUren estatutuak:

- **4. artikulua:** "UPV/EHUren helburuak". Nazioarteko trukea eta lankidetzaren indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.





## JOKABIDE KODEA

UPV/EHUK, 2007ko otsailaren 8an egindako **Gobernu Kontseiluan**, atxikimendua eman zion Garapenerako Lankidetzari buruzko Unibertsitateen **Jokabide Kodeari**. Kode hori Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Biltzarreko (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitate Batzordeak (CEURI) onartu zuen.





## JOKABIDE KODEA

Honako proposamen hauek biltzen ditu kodeak, beste hainbat gogoetaz gainera:

- ❖ Unibertsitate-erakundearen egiteko sozialaren osagai modura hartzea garapenerako lankidetzara.
- ❖ Solidaritatean eta balio unibertsalistetan oinarrituriko formazioa sustatzea, gizartearen arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko, berdintasun gehiagoz, iraunkortasunez eta giza eskubideak errespetatuz.
- ❖ Munduan zehar gizakien garapena eragozten duten arazoak ezagutzeko, ikertzeko eta haien berri emateko ahalegina egitea, unibertsitate-komunitateak arazo horiei arreta handiagoa eman diezaien.
- ❖ Giza baliabide espezializatuak jartzea garapenerako lankidetzaren zerbitzura, eta lankidetzako proiektuak eta programak abian jartzea, beste erakunde-eragile eta gizarte-eragile batzuekin batera.
- ❖ Solidaritate aktiboa eta boluntarioria sustatzea unibertsitate-komunitateko kideen artean, batez ere ikasleen artean; eta erraztasunak ematea gune espezifikoetan boluntario gisa jardun dezaten, programa propioak sortuz nahiz beste erakunde batzuetara bideratuz.





## **GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO EGITURAK, UPV/EHUN**

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak egitura hauen bidez garatzen du lankidetzaren arloko bere jarduera:

1. Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua
2. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa
3. Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerari Buruzko Ikasketaren Institutua/Hegoa
4. Garapenerako Lankidetzarako unibertsitate-elkarteak
5. Ikastegiaren eta Ikasleen %0,7 Fondoa





## **1. Garapenerako Lankidetzakontseilua**

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailaren 22ko saioan hartutako akordio bidez eratu zen, unibertsitate-komunitatearen garapenerako lankidetzako lan-, kontsulta- eta partaidetza-organo gisa.

Kontseiluan administrazio eta zerbitzuetako langileek (AZP), irakasle eta ikertzaileek (II) eta ikasleek parte hartzen dute, garapenerako lankidetzan jarduteko eta esparru horretako ekimenak finantzatzeko xedez. Kontseiluaren saioak unibertsitate-komunitate osoari irekiak dira.








## **1. Garapenerako Lankidetzza Kontseilua: eskumenak**

- ❖ Garapenerako lankidetzari buruzko Unibertsitateen Jokabide Kodea aplikatu dadin sustatzea.
- ❖ Garapenerako lankidetzari buruzko lanak, programak eta ekimenak lantzeko proposamenak egitea.
- ❖ Jokabide Kodearen eta garapenerako lankidetzaren esparruan erabakitako unibertsitate-politiken aplikazioaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- ❖ Nazioarteko Solidaritatearen esparruan eztabaida kritikoa sustatzea.
- ❖ Garapenerako lankidetzako ekimen bateratuak sustatzea beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekin.
- ❖ Garapenerako lankidetzaren esparruko jardueren hedapena sustatzea.
- ❖ UPV/EHUren gobernu-, ordezkaritza- eta aholkularitza-organoei esleitutako beste edozein.





## **2. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa**

Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedapeneko Errektoreordetzari atxikitako zerbitzua da, garapenerako unibertsitate-lankidetzaren sustatzeko UPV/EHU sortua.

Unibertsitate-komunitateko sektoreek garapenerako lankidetzaren esparruan egiten dituzten ahaleginak koordinatzen, sustatzen eta bideratzen ditu.





## 2. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa: jarduerak

Hauek ditu jarduera aipagarrienak:

- ❖ Lankidetzarako **hitzarmenak** sustatzea beste organismo eta erakunde batzuekin lankidetzan.
- ❖ Garapenerako unibertsitate-lankidetzako ekintzetarako eta **proiektuetarako laguntzen** deialdiak.
- ❖ Proiektuen formulaziorako **aholkularitza teknikoa**, IIRi, AZPri, eta ikasle-erakundeei.
- ❖ **Hedapen eta sentsibilizaziorako** jarduerak, hala nola: garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak, hiru campusetan; *"Hegoaldeko ikuspegiak"* kazetaritza solidarioko lehiaketa ...
- ❖ **Sareko lana**
- ❖ Garapenerako lankidetzarekin loturiko ikasketa amaierako lanetarako eta **unibertsitate-praktiketarako laguntzak**.






## 2. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa: jarduerak

Sareko lanari dagokionez, nabarmentzekoak dira ekimen hauek:

- Bulegoak lankidetzaren programa bat identifikatzeko eta formulatzeko prozesua gidatu du 9 unibertsitatearekin (**G9**) eta **Afrikako 4 unibertsitatearekin (Kenya, Uganda, Tanzania eta Etiopia)**, herrialde horietako erizaintzako eskolen irakaskuntza- eta ikerketa-ahalmenak sendotzeko eta osasuna eta sexu- eta eskubideak sustatzeko, genero-ikuspegitik.
- Jardunbide egokiei buruzko mintegi aurreratua Hawassan, Etiopian, honako gai hauei buruz: osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak, genero-ikuspegitik, unibertsitate-irakaskuntza arautuan.





### **3. Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua/ Hegoa**

Nazioarteko lankidetza eta garapenari buruzko ikasketen unibertsitate-institutua da Hegoa, Eusko Jaurlaritzak 1999ko urriaren 19an dekretu bidez sortua, UPV/EHUK eta HEGOA Elkarteak hura sortzeko sinatutako 1997ko maiatzeko hitzarmenaren emaitza gisa.

Unibertsitate-institutu eta gizarte-elkarte gisa, Hegoak giza garapenaren sustapenean dihardu, eta hauxe du helburu nagusia: giza garapenerako eta eraldaketarako lankidetzarako marko teoriko, prozesu eta estrategia alternatiboak eratzea, proposatzea, sakontzea eta ezartzea, pentsamendu kritikotik.

Hegoa Institutuak hainbat esparru lantzen ditu horretarako: Formazioa eta Dokumentazioa, Ikerketa, Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza, eta Aholkularitza.

Hiru maila hauetan bideratzen ditu unibertsitate-prestakuntza eta unibertsitate-irakaskuntza:

- ❖ **Doktoregoko** programaren bidez
- ❖ **Graduondoko** ikastaroen bidez
- ❖ **Ikastaro monografikoen** bidez





## 4. Garapenerako lankidetzako unibertsitate-elkarteak

**Boluntariotza** funtsezko tresna da unibertsitatea gizartera hurbiltzeko. Unibertsitatearen nortasunaren ikur berezigarria eta goi-mailako hezkuntza-eremuaren balioa da, eta munduko bidegabekeriei eta berdintasunik ezari buruzko pentsamendu kritikoa sustatzeko espazio dihardu. Hona hemen unibertsitate-esparruko zenbait elkarte:

❖ **UPV/EHUren %0,7 Elkartasun Fondoa.** Erabilera publikokoa, hilean %0,7ko ekarpena egiteko konpromisoa duten UPV/EHUko langileek osatua. <http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm>

❖ **Arquitectos sin Fronteras (ASF):** Bizigarritasunaren hobekuntza, entitate lokalekin. [asf.pv@euskalnet.net](mailto:asf.pv@euskalnet.net)

❖ **Bionatur:** Antolaketa, hedapena eta kudeaketa, zientzia eta teknologian eta bioaniztasunaren kudeaketan. [bionatur@hotmail.es](mailto:bionatur@hotmail.es)

❖ **Ekilore Munduan.** Kulturarteko Hezkuntza Elebiduneko ikastegietako praktikak, Pastazan, Ekuadorren. <http://ekilore.elkarteak.net>)





## 5. Ikastegien eta Ikasleen %0,7 Fondoa

UPV/EHUK ikasleek urtero matrikula egitean beren borondatez egindako ekarpenak biltzen ditu, eta ikasle bakoitzak ematen duen zenbatekoa adinako ekarpen osagarria egiten du.

**“Ikasleen 0,7 fondoa”** Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak unibertsitate-ikastegietan sustatzen dituen lankidetzarako hitzarmenak finantzatzera bideratzen da, urtero.

Bestalde, urtez urte gero eta gehiago dira beren diru-sarreraren proportioetatik garapenerako unibertsitate-lankidetzarako %0,7ko ekarpena egiten duten UPV/EHUKo **ikastegiak**: Letren Fakultatea, FIHZ, Donostiako Enpresa Ikasketen Eskola, Arte Ederretako Fakultatea... Gaur egun, horiek kudeatzen dituzte, zuzenean, garapenerako lankidetzarako baliabideak.





## SOLIDARITATEA, DATUTAN

- ❖ UPV/EHUren %0,7 Elkartasun Fondoak **493 bazkide** ditu.
- ❖ 1997 eta 2010 bitartean, alfabetatzeari edo lehen hezkuntzari loturiko **80 proiektu** inguru finantzatu ditu elkarte horrek, GGKEk kudeatzen dituztenak.
- ❖ 2009/2010ean, **ikasleek 20.480,07 €-ko zenbateko ekarpena egin dute, guztira**, garapenerako; ildo horretatik, bilakaera aipagarria izan da 2006az geroztik, ekarpena **5.246,56 €-koa** izan baitzen urte hartan.
- ❖ **481** ikaslek egin dituzte **garapenerako lankidetzako praktikak** 20 herrialdetan, Afrikan eta Latinoamerikan batik bat.
- ❖ 2004tik 2011ra **53 ikastaro monografiko** egin dira.







## **ESTEKA INTERESGARRIAK**

❖ **UPV/EHUren %07 Elkartasun Fondoa**

<http://www.ehu.es/rowupv07/hacerse.htm>

❖ **UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa**

<http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-shocdhm/es/>

❖ **UPV/EHUko Lankidetzaren Kontseiluaren Araudia:**

[http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-rsct/es/contenidos/informacion/rs\\_voluntariado/es\\_info/adjuntos/Consejo\\_Cooperacion\\_Desarrollo\\_UPVEHU\\_BOPV.pdf](http://www.unibertsitate-hedakuntza.ehu.es/p268-rsct/es/contenidos/informacion/rs_voluntariado/es_info/adjuntos/Consejo_Cooperacion_Desarrollo_UPVEHU_BOPV.pdf)

❖ **HEGOA:**

<http://www.hegoa.ehu.es/>

❖ **Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren Behatokia:**

<http://www.ocud.es/>



[ocud](http://www.ocud.es/)





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)

